

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Biarritz*



Aurkibidea

# Udalerria: Biarritz

## Sarrera



Biarritz edo Miarritze Lapurdi kostaldeko udalerria da eta Biarritzko Kantonamenduan dago. Baiona eta Angelurekin batera, BAB eskualdea osatzen du. Udalerrri hauek ditu mugakide: iparraldean, Angelu; hegoaldean, Bidarte; eta, hego-ekialdean, Arbona eta Arrangoitze. Munduko udaleku famatua XIX. mendearen ondoren, munduko aristokraziaren udaleku bihurtu zen.

Europako erregeen udalekua zen orduko Biarritz «hondartzen erregina eta erregeen hondartza» izan zen. 1863an, Luis Luziano Bonapartek eskualdean kokatu zuen euskararen muga, zenbait auzotan duda barik nagusia zena. Hala ere, XX. mendean frantsesa da hizkuntza ofizial eta nagusia. 1990eko hamarkadatik aurrera, Udaletxeak euskal kultura Biarritzko kulturatzat hartu eta euskara eta euskal kultura bultzatu du.

- **Biztanleak:** 25.903
- **Euskaldunak:** %8,26

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **21**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **21**

## Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Lierni Elortzaren fondoak

## Hizlariak

### Jakes Casaubon (1925-2021)



Izuran sortua, oihanzain ikasketak eraman zituen bigarren mundu gerra denboran. Frantzian egon ondoan, Senperen aritu zen oihanzain lanetan. Pilotaz ere arduratu zen, batez ere Miarritzen, eta pilota-soroez "*Euskal pilotaren gogoia eta artzain jokoak*" liburua atera zuen 2004an. Euskarari atxikia, Euskal Irratietan "Gure Bazterrak" emankizuna eraman zuen Luzien Etxezaharreta kazetariarekin batera 1997az geroztik. Irratsaio horretan egindako lanaren aitortza gisa, 2012an Argia Saria jaso zuen Luzienekin batera. Kultur elkarte askotako kide zen, besteak beste, Nafarroako Adiskideen Elkartekoa, Eusko Ikaskuntzakoa eta Euskarkeologiakoa. 2004an Eusko Ikaskuntzak antolaturiko "Baiona Hiria" ohorezko saria ere eskuratu zuen.

### Amaia Hennebutte (1972)



Biarritzen sortua. Aita Georges Hennebutte, zizelkari, margolari eta asmatzailea; ama Maite Maniort abokatua. Arte ederrak ikasi zuen Parisen. Artista, antzerkilaria, sortzailea eta idazlea da Amaia, batez ere haur-literaturan murgildua. Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteko lehendakari izendatu zuten 2018an.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Album Ilustratuak ez aski errekonozimendurik (BIA-002/001)

Album ilustratuak mintzatzen dira. Denei. Frantzia haur literaturaren eredu da eta poliki-poliki ari da errekonozimendua irabazten, baina hegoaldean oraindik urruti horretaz.

### 2. Haurren liburuak denentzat dira (BIA-002/002)

Zentzuak piztekoak behar dituzte haur txikienei. Hiru urtetik goiti "haurren liburuak denendako dira".

### 3. Album ilustratuak ezagutzea ezinbestekoa da horiek maitatzeko (BIA-002/003)

Helduek ez badute albuma (ilustratua) dastatua, ez dira ohartuko duten baloreaz.

#### **4. Album ilustratuen sakontasunaz (BIA-002/005)**

Irakurketa (eta bereziki album ilustratuena) haurrekin partekatzea garrantzitsua da, duten sakontasunaz jabetzeko.

#### **5. Hitzekin eta hizkuntzekin dantza egiten du bere liburuetan (BIA-002/006)**

Plazeraren bidez transmititu behar zaie haurrei irakurketa zaletasuna, jostetaren bidez hizkuntzekin eta hitzekin ongi pasaraziz.

#### **6. Idatz estiloa: mezuak iradokitzea nahiago du zuzenean esatea baino (BIA-002/008)**

Finagoa da mezua bideak iradokiz pasatzea. Irakurketa ezberdinak izan ditzake album (ilustratu) batek eta horiei bidea zabaltzea gustuko du.

#### **7. Loriatzen da haurren literatura munduan (BIA-002/009)**

Helduen eleberriek baino gehiago erakartzen dute haurren literatura sorkuntzak. Autobiografikotik ere badute bere liburuek.

#### **8. Desafio eta proiektu berrien zalea (BIA-002/011)**

Proiektuak, erronkak behar ditu bizitzeko eta horiek biziarazten dute.

#### **9. Galtzagorriko presidente da; irakaskuntzarekiko hausnarketa (BIA-002/012)**

Galtzagorriko presidente da, esperientzia ikaragarria eta mugaz gaindiko erronka handia. Hegoalde eta iparraldekoen arteko ezberdintasunak album ilustratuekiko.

#### **10. Galtzagorri aberasten du iparraldeko lehendakaria izateak (BIA-002/014)**

Kultura aberastasuna ematen diote elkarri Galtzagorri eta Amaiak (lehendakariak). Berari esker Montreuileko liburu azoka ezagutu dute.

#### **11. Galtzagorri bezalako proiektuek ba dute erakundeen babesa baina oso mugatua (BIA-002/015)**

Espiritu estua sumatzen du erakundeen aldetik, muga asko daude proiektuentzat babesa lortzeko.

#### **12. Beti euskara oinarri bere lan artistikoetan (BIA-002/016)**

Bere proiektuen oinarria euskara eta euskal kultura dira. "Albumak arte liburuak dira. Lan tresna ikaragarria dira guretzat".

#### **13. Albumaren indarra magikoa da; Libanoko esperientzia (BIA-002/018)**

Albumaren indarra esperimentatu du, baita zahar etxeetan ere. Botere ikaragarria dute. Esperientzia artistiko handiena Libanon bizi izan zutenekoa kontatzen du.

#### **14. IKUSI MIKUSI ekitaldiaz (BIA-002/020)**

Ikusi-Mikusi ekitaldiarekin (Euskal Herriko eta soilik euskarazko lehen haur literatura azoka, Saran ) lortu nahiko lukeena. Euskal haur literaturaz kontzientzia hartzea.

#### **15. "Haur bat liburu bat" proiektuaz (BIA-002/021)**

Ikusi-Mikusi ekitaldiko "Haur bat liburu bat" proiektua: haur bakoitzari bonu bat eman nahi zion eta lehen euskarazko liburua erosi ahalko zuen horrekin. Ez da bururaino eraman ahal izan.

#### **16. Euskal Herri osoko haurrak biltzeko gunea da mugaz gaindi (BIA-002/022)**

Ikusi-Mikusi ekitaldian haurrak gurutzatzea da helburua eta Covidaren oztopoa muga handia bihurtu da. Sara horretarako erreferentziazkoa da.

#### **17. Euskara hutsean diren haurrentzako liburu azoka da IKUSI- MIKUSI (BIA-002/023)**

Euskara hutsean diren haurrentzako liburuen I. azoka da Sarako IKUSI- MIKUSI.

#### **18. Nola sortu den Ikusi-Mikusi proiektuaren ideia (BIA-002/024)**

Ikusi-Mikusi proiektuaren ideia nola sortu zen eta nola gauzatu den Galtzagorri eta Sarako Herriko Etxekoan arteko lotura.

#### **19. Bere sorkuntzetan askotan agertzen dira begiak, asko erakartzen dute (BIA-002/026)**

"Begietan bada arima". Marina Abramovicen Performantzea aipatzen du

#### **20. Besteak maitatzeko, geure burua maitatu behar dugu (BIA-002/028)**

Besteak maitatzeko, geure burua maitatu behar dugu. Emakumeek bereziki.

#### **21. "Krakapattak" hitza proiektu artistiko gai izan daiteke (BIA-002/030)**

Buruan darabilkien "Krakapattak" hitzetik sortuko da proiektu berri bat ziurrenik. "Hazi ttiki batetik proiektu handiak sor daitezke, ikusten jakinez gero".

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-29

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com